

DANOBAT S.COOP.en KUDEAKETA BATERATUEN POLITIKA

Politika hau gure Kudeaketa Sistema Bateratuaren oinarri den erreferentzia markoa da, eta nazioarteko arau hauen betekizunen arabera garatu eta ezarri da: Kalitatearen kudeaketari buruzko ISO 9001 araua; Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko OHSAS 18001 araua; Energiaren kudeaketari buruzko ISO 50001 araua; eta Ingurumenaren kudeaketarako ISO 14001 araua.

POLITIKA

DANOBAT, KOOP. E-ren jarduera nagusia da makina-erreminten diseinua, fabrikazioa, muntaketa eta salmenta, eta bere lehiakideengandik bereizten da eskaintzen dituen soluzio eraginkor, espezializatu eta teknologikoengatik, gure ezagutzak garatzea eta gure bezeroekin batera etorkizuna eraikitzea ahalbidetzen baitigute.

DANOBAT Koop. E-ren misioa da balioestea zein garrantzitsua den gure bezeroak kalitatezko produktu eta zerbitzuekin asetzea, pertsonen ahalik eta bizitza eta lan estandarrik altuenak eskaintzea eta etengabe guru ingurumena errespetatzea.

Gure misioa lortzeko, agintzen dugu **Kudeaketa Sistema Bateratu** bat eraginkortasunez ezarriko dugula, **etengabeko hobekuntzan** eta honako **konpromiso** hauetan oinarrituta:

- **Bezeroen eskakizunak** etengabe betetzea, haien premiak eta itxaropenak erabat aseko dituzten produktuek eta zerbitzuak garatuta eta hornituta.
- **Lege betekizunak eta araudizkoak eta borondatez hartutako konpromisoak** beteko ditugula ziurtatzea.
- **Energiari eta Ingurumenaren** errespetuari lotutako irizpideak kontuan hartzea gure produktuen **diseinuan eta garapenean**, bai eta ekipo eta zerbitzu berriak erostean ere.
- **Ingurumena** babestea, beti **kutsaduraren prebentzioa** printzipiotzat hartuta eta gure jarduerak **ingurumenean eragiten dituen kalteak** saihestuta edo minimizatuta.
- **Segurtasun eta osasun maila handia** lortzea lanean, erakundeko kide guztientzat, **arriskuen prebentzioaren** bitartez, **osasunari egiten zaizkion kalteak minimizatuz eta kontrolatuz**.
- **Jardueraren etengabeko hobekuntzarako** helburuak eta jomugak ezartzea **Kudeaketa Sistema Bateratuaren eremu guztietan**.
- **Enpresa osasuntsuaren** ohiturak bultzatzea, arreta berezia eginez langileen giro psikosozialari eta osasun integralari.
- **Gure bazkide eta langileei profesionalki eta pertsona gisa garatzen** laguntzea, modu aktiboan, **prestakuntza** eta promozioa eskainita, lanpostuen kalitatea eta segurtasuna eta enpresaren lehiakortasuna bera etengabe hobetuz.
- **Proposatutako helburuak eta jomugak** lortzeko beharrezkoak diren giza **baliabideen** eta baliabide materialen **komunikazioa, informazioa** eta **eskuragarritasuna** bermatzea.
- **Funtzio bakoitzerako zehaztuta dagoen hizkuntza** erabiltzea, **Euskara izanik hizkuntza nagusia** eta gainerako hizkuntzen artean lehenetsiko dena Euskal Herriko languneetan.

Hau guztia **portaera kode** baten menpe, zeinen bidez konpromiso hauek hartuko ditugun gure gain:

- **Zintotasunez** jokatzeko, **portaera zuzenak, duinak eta etikoak** edukiz, gure enpresan konfiantza eragiteko, kudeaketan eta gure interes taldeei helarazitako informazioan gardenak izanda.
- **Ez onartzea inolako jazarpen, iruzur, ustelkeria, eroskeria** edo **haurren esplotaziorik**.
- **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren errespetua, aukera berdintasunak eta pertsonen duintasunaren eta norbanakoaren eskubideen errespetua** bultzatuta.

Gure elkarte izaeratik geure egiten ditugu **Lankidetzaren** balio korporatiboak: **Jabeak eta protagonistak, Parte hartzea: Konpromisoa** kudeaketan, **Erantzukizun Soziala: Aberastasunaren banaketa solidarioa, Berrikuntza: Etengabe berritzea.**

Gure ustez, modu bakarra dago hartutako konpromisoak betetzeko, Zuzendaritzaren lidergo garbiarekin eta gure bazkide, langile eta lankideen inplikazio eta lankidetzarekin, **etengabeko hobekuntzaren** aldeko kultura parte hartzailea bultzatuta.

DANOBAT, S. COOP.eko gerentziak politika honen definizioa **onartzen du** oso-osorik, eta garbi dauka denon onurako dela. Hori dela eta, gure bazkide eta langileen lankidetzara eskatu eta eskertzen du.

Xabier Alzaga
Zuzendari gerentea
Danobat S. Coop.



Elgoibar, 2016ko uztailaren 7a